ASTIGARRAGA

# Petritegi sagardo apardunarentzat saria, Seattleko 'Cider Craft Awards'-en

Kronika - Erredakzioa 2022-03-21 00:00




Petritegiko sagardo apardunak irabazi du saria.

Sari hau lortzen duen nazioarteko bigarren saria da: 2019an Frankfurteko 'Cider World' sariaren ondoren.

Petritegi brut nature sagardo aparduna saritu dute Seattleko (AEB) *Cider Craft Awards* nazioarteko lehiaketan. Sari hau Astigarragako sagardotegi honek lortzen duen nazioarteko bigarren saria da: 2019an Frankfurteko (Alemania) *Cider World* sariaren domina irabazi bait zuen.

**XIX. Mendean ekoizten zen Gipuzkoan**

Sagardo aparduna ez da edari berria Gipuzkoan: XIX. mendearen amaieratik azaltzen da agiri zaharretan. Garai hartako markarik ospetsuenak Brunet familiak ekoiztutako *El miquelete* eta *Oria*, Oiartzungo *Mitxelena y Urbina* eta Azpeitiko *La Vasco-Argentina* ziren.

Petritegitik hurbilago, Astigarragan bertan, 1924an Jose Lasak sagardo aparduna ekoizten zuen, sagardogintzan tradizio haUndia duen Ergobia auzoan. Gerra zibilaren ondoren ia galdu egin zen orain Petritegin berreskuratzen ari den, sagardo mota hau kontsumitzeko eta ekoizteko ohitura.

Otaño-Goikoetxea familiak produktu berezi hau nola egiten den ezagutzeko aukera eskaintzen du: bisita gidatuak antolatzen dituzte astearte, ostegun eta larunbatetan, 12:30etan, euskaraz eta gaztelaniaz.

Bere ekoizpenaren sekretuak eta Petritegiko leku ezezagunenak ezagutzeaz gain, produktu berriak dastatzeko aukera eskainiz.

Gizartea Astigarraga

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta

profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun













## Ikusienak



**Sekulako festarekin ospatu zuten mende erdia 1972koek!**

Kronika - Erredakzioa

ira 26, 00:00 Hernani




**Horten maitea**

Juanra Jodar

Arruiz ira 26, 00:00

Hernani



**Mondragon Unibertsitateak, Galarretako campuseko ingenieritzako 120 ikasle berrirekin hasi du ikasturtea**

Kronika - Erredakzioa

ira 27, 00:00 Hernani



**Karabelgo Jaiak, larunbata**

Iruditan

Kronika - Erredakzioa

ira 24 Hernani



**Finalaurrekoetara pasea bideratu dute Agin Laburuk eta Nerea Elustondok, Getxon**

Kronika - Erredakzioa

ira 26, 00:00

Astigarraga Hernani



**Datorren igandean jokatuko da Astigarragako Kros Herrikoia, eta gaurtik eman daiteke izena**

Kronika - Erredakzioa

ira 26, 00:00

Astigarraga

## Kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus

*Codesyntaxek garatua*

HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS

Gipuzkoako Foru Aldundia - Hernaniko Udala - Astigarragako Udala - Ereñotzuko Auzo Udala - GOIZUETAKO UDALA - ARANOKO UDALA

TOKIKOM

## Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA AIKOR AIURRI ALEA AMEZTI ANBOTO ANTXETA ATARIA BALEIKE BARREN BEGITU

DEUSTUALDEA PREST ERLO TELEBISTA ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GEURIA GOIENA GOIERRI TELEBISTA GUAIXE HIRUKA

KARKARA KRONIKA MAILOPE MAXIXATZEN NOAUA OIZMENDI TELEBISTA PLAENTXIA TXINTXARRI URIOLA UZTARRIA

28 KANALA

Gurean Plazanbazan Ttap

Tokikom publizitatea